

# Jazzaren esentzia Vitoria-Gasteizko Jazz Jaialdiaren 44. edizioan itzuliko da

**Branford Marsalisen laukoteak eta Charlie Parkerri bere jaiotzaren mendeurrenean egindako omenaldiak gaur egungo saxorik onenak bilduko dituzte Mendizorrotzan**

**Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 28a.** Egungo jazz interpretarik onenekin kalitatezko programa bat osatzeko erronkan, Vitoria-Gasteizko Jazz Jaialdia 44. edizioko protagonista izango diren izen batzuk iragartzen hasi da. Horietako asko argitaragabeak dira Gasteizko publikoarentzat, musika estilo horren etorkizuna irudikatzen duten musikarien belaunaldi berri batekoak baitira.

Instrumentu jazzistikoen artean nagusienetakoa den saxoa, baieztatutako proposamenen ardatzetako bat izango da. 2020a Charlie 'Bird' Parker jazzaren figura garrantzitsuenetako baten mendeurrena da, eta Vitoria-Gasteizko Jazz Jaialdiak omenaldia egin nahi dio **The Charlie Parker Legacy Band**arekin, 90eko hamarkadaren amaieran sortutako taldea, 'Bird'-en musika bizirik mantentzeko asmoarekin. Oraingo honetarako, be-bop eta Parkerren konposizioetan sustrai sakonak dituzten musikari garaikide onenetako batzuk bildu dira, eta, gainera, saxoaren beste jeinu batek egin zituen moldaketak erabiliko dituzte: Phil Woods. Justin Robinson, Vincent Herring eta Jesse Davis saxo altuan, Benny Green pianoan, Gerald Cannon kontrabaxuan eta Willie Jones III baterian arituko dira.

Parker bere garaiko artista miretsienetako bat izan bazen, gaur egungo saxoa **Branford Marsalisek** antzezten du. *The Secret Between the Shadow and the Soul* azken albumarekin lortutako arrakastaren ondoren, 2019ko onenetakoa dena eta izenburua Nerudaren bertso batzuetan oinarrituta dagoena, Marsalis taldeko nagusiena distira eta emozioa kondentsatuko dituen laukotearekin Gasteizera itzuliko da.

Joey Calderazzo piano jotzailearen, Eric Revis baxu jotzailearen eta Justin Faulkner bateria-jolearen laguntzarekin, Marsalis buru duen taldea musikaren, historiaren eta estilistikaren ikuspegia zabaltzeko moduaren adibide da, zuzeneko soinu paregabearekin.

Branford Marsalisek itxiko du Anne Pacey bateria jotzaile eta abeslari frantziarrak irekiko duen ostirala, uztailaren 17ko saio bikoitza. Estilo berezi batekin, mugak hausten dituzten kode eta estiloekin jolasten du konpositore emankor honek, musika estiloen artean mugarik ez dagoela duen sinesmena sendotzen dutenek. Boli Kostan duen haurtzaroak zerikusi handia du perkusioarekiko bere grinarekin, eta 19 urte zituenetik etengabe formatu da eta Frantziako eta nazioarteko eszenako musikariei lagundu die. Iaz Bright Shadows kaleratu zuen, ahotsentzat erabat idatzitako albuma, eta kritikaren parte handi baten artean oso harrera ona izan zuena.

Paceyek nazioarteko jazzaren bateria-jotzailerik bilatuenetako batekin partekatzen du instrumentua: Antonio Sanchez. Musikari mexikarrak, bost Grammy irabazi dituenak, oihartzun handia lortu zuen 2014an Gonzalez Iñarriguren Birdman soinu bandaren konposizioarekin. Pat Metheny eta Chick Corea taldeen ohiko kolaboratzailea dena, hamar bat bakarka disko argitaratu ditu Sanchezek.

Larunbatean, uztailaren 18an, Vitoria-Gasteizen kontzertua emango du Donny McCaslin, Miguel Zenon eta Scott Colley musikariekin batera Antonio Sanchezek. Taldekide bakoitzaren inprobisazioa, sormena eta irudimena uztartuz, esperientzia paregabea biziko dela agintzen duen laukoteak.

---

Jazz Jaialdiaren prentsa kabinetea: Marieta Vargas  
[prensa@jazzvitoria.com](mailto:prensa@jazzvitoria.com) / 600.801.707